

{ analisis } Beñat Zarrabeitia Asensio

«Basquet Country»: Itzalpeko istorio mundialak gurean

Gaur abiatuko da espainiar Estatuan Munduko Saskibaloiko Txapelketa. Bilboko egoitzan Ameriketako Estatu Batuak, Ukraina, Turkia, Dominikar Errepublika, Zeelanda Berria eta Finlandiako taldeek elkarren aurka jokatzen ari dira Barakaldoko BECeko Bizkaia Arena pabiloian. Zaleen gozamenarako, izar handiak bertatik bertara ikusteko aukera izango da. Tamalez, beste behin ere euskal selekzioak ezingo du txapelketan parte hartu, baina bertako saskibaloiak ere baditu kontatzeko modukoak diren istorio bitxi eta mundialak.

Erraldoia Seat 600 bat gidatzen

Donostiako Alde Zaharrean jaioa, pilotari baten semea eta euskaldun petoa. Ez dira aparteko datuak, baina dena aldatzen da Segun Azpiazuk 2,11 metroko luzera duela esatean. Are gehiago 60ko hamarkadaz ari bagara. Umezaroan eskuinteko besoa apurtu zuen, eta, gaizki jarritako igeltsuaren ondorioz, betiko arazoak izan zituen. Saskibaloian aritzeko traba izan zitekeena, baina, bertute bilakatu zuen Joxean Gaskaren lanari esker.

Etxeko taldean maila eman ondoren, Bilboko Kas taldean eta Bartzelonan aritu zen. Ka-

Munduaren begiak Barakaldoko BECen jarrita daude, bertan arituko baitira egunotan NBAko hainbat izar. Saskibaloiak zale ugari ditu Euskal Herrian, baita publiko handiarentzat ezezagunak bilakatu diren hainbat istorio eta pertsonaia ere.



Segun Azpiazu eta Xabier Añuaren agindura, garaiko Bartzelonan. GAUR8

talunian Xabier Añua gasteiz-tarraren aginduetara egon zen eta Aito Garcia Reneses beraren taldekidea izan zen. Azpiazuren bizitokia Aitoren izeko batek Grazia pasealekuan zuen etxe bat izan zen. Biek elkarrekin lan saioetarako bidea modu bitxian egiten zuten: Lambretta batean. Txikia aurrean,

erraldoia atzean. Arreta bereganatzeko moduko bidaia.

Ondoren, Azpiazuk Seat 600 bat erosi zuen. Ibilgailua egokitu behar izan zuen ezinbestean, eta, hala, atzeko eserlekutik gidatzen zuen. Azpiazuk ez zituen sustraiak inoiz baztertu eta Markinako pilotari batek Bartzelonako Kale Nagusian

zuen jatetxera bisita ugari egiten zituen. 70eko hamarkadan Donostiara itzuli eta Askatuak taldeko historiako ikur bilakatu zen. Joxean Gaskaren heriotzaren ondoren, taldeko entrenatzaile ere bilakatu zen.

Pisu handia izan du Azpiazuk jaiotzen ikusi zuen Donostiako Alde Zaharreko bizitza sozialean ere. Horren lekuko, inauterietan antolatzen zituenak. 1983ko prentsak jasotzen duen bezala, Orquesta Mondragon taldeko Popotxo Aiestaranekin batera ezkontza berezia egin zuen Fermin Calbeton kalean; Azpiazu emaztegaiz jantzita agertu zen. Beste behin, Txanogorritxuren moxorroa aukeratu zuen. “Egin” egunkarian egindako elkarriketa batean honakoa zioen orduko Donostiako Aste Nagusiaz: «Ez da jai batere parte hartzailea. Donostiarrok hala antolatu ditugu jaiok, eta, ondorioz, merezi duguna dugu».

Markinako pilotariaren semea, Bartzelonako joko antolatzailea

Arestian aipatu bezala, Azpiazu maiz joaten zen Kataluniako hiriburuan pilotari bizkaitar batek zabaldutako jatetxera. Bertan, Xabier Añuak berarekin bazkal-tzen zuen sarri. Janariaz gozatzear gain, beste helburu bat zuten: jabeen semea fitxatzea. 11 urte zituen Iñaki Solozabalek, aita Markinako pilotari ohia zen eta ama igorreztarra. Ez zieten erraz jarri, semea ikasketetan kontzentratzea nahi baitzuten.

Gurasoen lehentasunak lehentasun, Solozabalek hamahiru urte eman zituen Bartzelonako lehen taldean, sei Liga eta bederatzi Kopa irabaziz. Espainiako selekzioan 142 aldiz jokatu zuen, hiru Olinpiar Jokoetan parte hartuz. Juanma Lopez Iturriaga bilbotarrarekin batera, 1983ko Europako Txapelketan zein 1984 Olinpiar Jokoetan zilarrezko domina eskuratu zuen.

Zaleek izugarri maite zuten, bereziki 1988ko Errege Kopako finalaren azken segunduan Real Madrili sartutako hiruko jaurtiketaren ostean. 1992an, Aito Garcia Reneses entrenatzaileak Solozabal taldetik at utzi zuenean, polemika handia izan zen. 2006tik, Bartzelonak berak jantzitako “7” zenbakia erretiratu egin zuen. Egun, Kataluniako Telebista publikoan dihardu.

Gaska eta Añua, aitzindariak

Apurtzaileak, euren garaiari aurrea hartu zioten pertsonak izan ziren Joxean Gaska eta Xabier Añua. Gaska donostiarrak Atleti-



Solozabalek hamahiru urte eman zituen Bartzelonako lehen taldean.
GAUR8

co San Sebastian taldea sortu zuen, bertako zuzendari eta entrenatzaile izanik. Espainiako Federazioarekin hainbat iskanbila izan zituen, jokalarien profesionalizazioa, babesleen beharra, liga berri baten sorrera eta atzeritarren parte hartzea defendatzen zituelako. Real Madrileko teknikaria zen Pedro Ferrandizekin ere polemika ugari izan zituen. Behinola, «Ferrandizek Sara Montielek baino antzerki gehiago egiten du» esan zuen, zalaparta handia sortuz.

1970ean frantses Estatuko txapelketara jauzi egin zuen. Jeanne D'Arc Vichy taldea zuzendu zuen, eta, ondoren, Le Mans ligako txapelkunorde egin zuen. Berriro etxean, Askatuak sor-

tzaileetako bat izan zen, Essie Hollis eta Nate Davis bezalako jokalariek estatubatuar ikusgarriak fitxatuz. 1982an, soilik 45 urte zituela, garun isuri batek koman utzi zuen. Handik hila-bete batzuetara hil egin zen.

Xabier Añua 1935ean jaio zen Gasteizen eta Kas taldeko entrenatzaile mitikoa izan zen. Knorr familiaren babes ekonomikoari esker, Kopa txapelkunorde izateraino. Baina, Kas txirrindulari taldeko zuzendaria zen Domingo Langarikarekin izandako polemika batek, Añua kargutik kentzea eragin zuen. Egoerak hainbat protesta sortu zituen Arabako hiriburuan, besteak beste freskagarri etxearen kontrako boikota. Haserre, Luis Kno-

rrek saskibaloia taldea Bilbora eramatea erabaki zuen. 1968an, Bartzelonarekin akordioa lotu zuen Añuak, bertan lau urte igaroz. Ondoren, Bilboko Aguilas eta frantses Estatuko Ligan Antibes zuzendu zituen.

Ohikoak ziren AEBetara egiten zituen bisitak ere. NBAko New York Knicks taldeko teknikari batek “Liburu beltza” eman zion behin fitxatu behar ez zituen jokalarien zerrendarekin. Beste behin, Baskoniaarentzat lanean ari zela, DePaul Unibertsitateko partida bat ikustera joan zen, Mark Aguirre izeneko jokalariek batek estatistika bikainak zitu- tuelako. Erbestera baten semea izan zitekeela uste zuten, baina jokalaria aurrez aurre ikustean iritsi zen ezustekoa: beltza zen. Aguirreraren abizenaren jatorria erabateko misterioa da. Hainbat forotan bere familia Dominikar Errepublikakoa dela diote. Bada bestelako teoriarik ere, abizena euskal lurjabe batek bere esklabo izandakoei emandakoa dela dioena.

Hego Ameriketako hainbat herritan bere jakinduria zabal- dutakoa ere bada Añua. Saskibaloia- ren jarraitzaile sutsua izaten jarraitzen du eta teknologia berriak erabiltzeari garrantzi handia ematen dio. Bestalde, politikoki ere gizon konprometitua izan da: HBko lehen Mahai Nazional-eko kidea eta Arabako Amnistiaren Aldeko Gestoretako presidentea izan zen 70eko hamarkadaren amaieran.

Helikopteroa eta sumendia

Joxean Gaskak begi klinikoa zuen talentuak identifikatzeko.

Askatuak taldeko entrenatzaile gisa, joko erabat apurtzailea zuten estatubatuarrek kontratu zituen. 1977an Essie Hollis iritsi zen Donostiara eta denak aho zabalik utzi zituen. Bizkarkako mateak, jauziak eta saski- ratzeak lortzeko erraztasun handia zuen. Denboraldia 40 puntuko batez bestekoarekin bukatu zuen. Kurtsoa amaitzean, NBAko Detroit Pistonsera joan zen. 1983an Euskal Herri- ra itzuli zen Baskonian jokatzeko; bi urte geroago Askatuak fitxatu zuen berriz.

Hollis *Helikopteroa*-ren orde- zkoa Nate Davis izan zen. Jokalari indartsua eta ikusgarria. Real Madrili 55 puntu egin zizkion, baina Gaskarekin izandako ikami- ka batek taldetik kanpo utzi zuen. Ondoren, Valladoliden eta Ferrolen aritu zen. 1985-1986 denboraldiaren erdian, le- pauztaia hautsi ondoren, desa- gertu egin zen. Inork ez zuen bere berririk izan, “Informe Ro- binson” telebista saioak iaz be- rarekin kontaktatzea lortu zuen arte. Istorio tristea da Da- visena. Arrazoiak, bere emaztea- ren gaixotasuna: odol transfu- sio batean hiesa kutsatu zioten, eta, jokalaria, zuen diru guztia sendagaietan xahutu zuen, al- ferrik. Emaztea hil egin zen.

Lehen egunean, Deustuko Zubian botata

1986ko uda, Bilbo. Hiri indus- trialak, ibaiak kolore marroia zuen eta Deustuko Zubiaren azpitik itsasontziak igarotzen ziren oraindik. Halako baten, kea zeriola, auto batek bide bazterrean geratu beharra izan



zuen. Bertatik, 2,07 metroko luzera duen jokalaria estatubatuar bat atera zen: Caja Bilbao taldeko lehen fitxaketa zen eta Darrell Lockhart zuen izena. Berandu iritsiko zen lehen lan saiora, Joxean Figuerola entrenatzailearen haserrerako!

Entrenamendura iritsi zenean, oihuak. Gasolina arrunta erabiltzen zuen auto bati gasolioa bota zion. Ondo hasi ez zen harremana, baina, bikain amaitu zen. Lockhartek bikote bikaina osatu zuen Joe Kopicirekin batera eta zaleek izugarri maite zuten. Bilbon, Errege Magoen kabalgatan Baltasarren papera egitera ere heldu zen. Berriki, ACB ligako webguneari eskainitako elkarrizketa batean, Lockhartek honakoa zioen: «Hasiara gogorra izan zen. Jendeak Bilbo bizitzeko leku arraroa zela zioen, jendea berandu altxatu eta oheratzen zela zioten. Baina bertara iristean, hori gezurra zela ikusi nuen. Lagunak egin nituenean bertako sentitu nintzen; lan egin gura duen edonorentzat leku perfektua da Bilbo. Oraindik faltan botatzen dut bertako jendearen gertutasuna, baita

janaria ere. Izan ere, Bilboko haragia liluragarria da!».

Pinedo, botak jantzita

Primo de Riveraren diktadura garaiko Donostian jaio zen Ignacio Pinedo. Bere ibilbide gehiena Madrilen egin zuen, Real Madril eta Estudianteseko jokalaria eta teknikari gisa. 1950ean Argentinan lehiatutako lehendabiziko Munduko Txapelketan aritu zen, eta, behin jokalaria gisa erretiroa hartu ondoren, Espainiako selekzioako gazte mailetakoko entrenatzailea izan zen.

1991n, Real Madrilek deitu zuen berriro ere, talde zuriak pairatzen zuen krisi sakona iraultzeko asmoz. Wayne Brabenderren lekua hartuta, Clear Cantu talde italiarraren aurka Errekopako finala zuzendu behar zuen. Baina, joaneko partidaren zehar, espero gabeko ezbeharrak heldu zen: Pinedo gaizki sentitzen hasi zen eta bihotzekoa jasan zuen. Bost hilabete koma sakonean eman ostean, abuztuaren 16an hil egin zen. Botak jantzita, aulkian eserita joan zen donostiara.

Ezkerrean, Joxean Kerejeta Baskoniako presidenteak fitxatutako Luis Scola eta Nocioni. Eskubian, Aitor Zubizarreta euskal selekzioaren elastikoarekin. Raul BOGAJO-Gorka RUBIO | ARGAKZI PRESS

Argentinako hiriburua? Gasteiz

Joxean Kerejeta Baskoniako presidente izatera heldu zenean, taldea Europako onenen artean jartzea zuen helburu. Lehen pausuetako bat harrobia indartzea izanik, mundu osoko talentu gazteak fitxatzen hasi zen. 1991n Marcelo Nicola eta Walter Quiñazu argentinarrak fitxatu zituen eta aurrenekoak laster egin zuen debuta lehen taldearekin. 1996an, berak altxatu zuen Errekopako titulua gasteiztarren kapitain bezala.

Uda horretan kluba utzi eta bere ordez Juan Alberto Espil iritsi zen, baita Luis Scola izena zuen 16 urteko gaztetxo ere. Geroztik, kate amaigabea, Gasteiz Argentinako saskibaloia- ren hiriburu bilakatzeraino: Oberto, Nocioni, Schonochini, Gaby Fernandez, Gabini, Victo-

riano, Wolkowyski, Palladino, Prigioni, Eslava, Sandes, Hermann edota Mainoldik jantzi dute gorri-urдинen elastikoa. Uneren batean, bost jokalaria argentinarrak bostekoa osatzeraino. Julio Lamas ere izan zen taldeko entrenatzailea. Horietako asko Baskoniaren historian urrezko hizkiekin idatzitako abizenak dira. Harrobian ere bada abizen ezagunik, 1999an jaiotako Markel Nicolak aitaren urratsak jarraitzen dituelako eta egun Baskoniako kadeteetan jokatzeko baitu.

«Scooby-Doo» eta Jorge, NCAA konkistatu nahian

Ezagunak dira Euskal Herrian unibertsitate mailako ikasketak eta goi mailako kirola bate-

Liluramenduz

Naiara Garzia

Pasa den aste-
artean 100
urte bete iza-
nen lituzke,

intelektualki, berak esaten zuen bezala, 35 urteko pertsona bat bezala sentitu arren. Julio Cortazar idazlea (1914-1984) 70 urterekin hil zen, bizitzaz eta liluramenduz beteriko begirada horrekin.

Cortazar transzendentala Cortazar umoretsua bezain aberasgarria da. Parisen pisu xume batean Aurora Bernardezekin bizi zela (hasieran etxe barruan komunik gabe eta gero Aurora-ren zorionerako sukaldean dutxa bat jarri zuten, plastikozko gortina batez inguratutako kubo bat besterik ez bazen ere), sukaldean ke-erazgailua jartzzen hasi zen, bere 1,92 metrorekin. Ohartu gabe alderantziz jarri eta haizea hartu ordez tramankulua ufaka hasi zen, sukalde guztia hautsez betez. Horrelako pasarteak umore handiz kontatzen ditu Alfaguara argitaletxeak argitaratutako gutunetan.

Autoarekin ere gorabehera batzuk izan zituen Cortazarrek ("Rayuela" bertan ere honen inguruko pasarte barregarri bat bada). Koadro baten truke auto txiki bat hartu zuen, "jogurt itxura" zuena, ustez martxan ongi jarri eta aurrera joan ordez atzera zihoala ohartu gabe (eta zuhaitzak atzeraka), loteria saltzen zuten etxola baten kontra joan zen. Ohartu orduko autoaren ihes-hodia etxetxoaren barruan zegoen loteria saltzailearen harri durarako ("Un Julio habla de otro").

Julio Cortazar Parisen hil zen. Argentinarra izan arren, bere bizitzako azkeneko urteetan nazionalitate frantsesa hartu zuen, Argentinako diktaduraren aurkako bere ezadostasuna modu baketsu eta tinkoan azaltzeko. •



Larrañaga prestigio handiko abizena da AEBetako saskibaloian. Irudian, Jay Larrañaga. GAUR8

ratzeko dauden zailtasunak. Horrenbestez, hainbat jokalaria gaztek AEBetara joatea erabakitzen dute, bertan ikasketekin jarraitu eta saskibaloian aritzeko aukera dutelako. Bide hori jorratu zuen aurrenetarikoa Ricardo Alcaine bilbotarra izan zen. 1990ean Caja Bilbaon jokatu ondoren, Atlantikoa gurutzatu zuen NCAA jokatzeko

Iker eta Antxon Iturbe anaiak, berriz, Clemson eta George Washington unibertsitateetara joan ziren Gasteizko Olabide ikastola utzita. Antzeko erabakiak hartu zituzten Eñaut Aranbarrik, Iker Lopezek, Xabi Zusperreguy lapurtarrak edo Oscar Garciak ere.

Azken urteotan, krisiak eraginda, lau dira AEBetako unibertsitateetan aritzen diren euskal jokalaria gazteak. Nabarmenenak Aitor Zubizarreta azpeitiarra eta Jorge Bilbao bizkaitarra dira. Biek jantzi dute euskal selekzioaren elastiko berdea berriki Filipinak eta Angolaren aurka jokatutako partidetan. Zubizarreta Portlanden dabil, Iraurgi utzi ondoren. Oregonera iristean denek Xubi deitzen bazuten ere, berehala jarri zioten beste ezi-

zen bat ere: *Scooby-Doo*. Bilbako, aldiz, Indautxuko Loiola taldetik Texas Arlington unibertsitateerako bidea egin zuen iaz. Ez dira bakarrik: Alex Ramon gasteiztarrek Colgaten jokatzen du eta Javier Lacunza nafarrak Florida Atlantic unibertsitatean.

NCAAn aritu ondoren, jokalaria gehienak Europara itzultzen dira, gutxiengo bat NBAko *draft* zozketa ezagunean sartzen da eta badira Udako Ligetan frankiziaren baten arreta bilatzen dutenak ere. Eta hori da Xavier Mendiburuk 2005ean egin zuena. Bartzelonan jaioa, 80ko hamarkadan Granollers taldeko pibota zen Xabier Mendiburu bizkaitarraren semea da. Milwaukee Bucks taldearekin jokatzen zuen Udako Ligetan, aurretik Green Bay unibertsitatean ibili ondoren. Oraindik, baina, oso urruti ikusten da euskal jokalaria batek NBA debutu egiteko unea. Hori bai, nork daki Larrañaga abizeneko entrenatzaile bat ikusiko ez ote dugun Boston Celtics talde mitikoan...

Izan ere, Larrañaga prestigio handiko abizena da AEBetako saskibaloian. Jim Larrañagak

bost unibertsitate ezberdinetako taldeak zuzendu ditu NCAA; 2011tik, Miami Floridakoa zuzentzen du. Bertako hedabideei azaldutakoaren arabera, bere abizena euskal erara esateko eskatzen dio mundu guztiari, hau da, bere amama euskaldunak erakutsi zion gisara.

Larrañagaren birraitona Euskal Herritik Kubara joan zen eta haren seme-alabak uharteetan jaio ziren; ostean, bere aita 40ko hamarkadan AEBetara joan zen bizitzera. Por Larrañaga Cigar enpresaren sortzailea izan zen sendia, sona handiko konpainia.

Tabakoarekin baino, saskibaloiarekin harreman estua dute egun Larrañaga sendiko kideek. Jimek bi seme izan zituen, Jay eta Jon, biak ere Europako taldeetan jokalaria gisa arituak. Jayk Calabria, Villeurbanne, Milan, Paris, Real Madrid, Napoli edo Gran Canaria taldeen kamisetak defendatu zituen. Egun Boston Celtics taldeko bigarren entrenatzailea da eta talde berdea Udako Ligetan zuzendu berri du. Hainbat adituen arabera, "marea berdearen" hurrengo entrenatzailea izan daiteke.

SKATER ONENAK GETXON

Volcom Bowl-A-Rama nazioarteko zirkuituko proba ospatuko da Algortan

 **GIZARTEA** / Aimar ESNAOLA CUESTA

Munduko skater onenak Euskal Herrian; hori topatuko du irailaren 6an Algortara hurbiltzea erabakitzen duen orok. Tradizio handia duen La Kantera skateparke ezagunean egingo da Getxo nazioarteko mapan New York, Sydney eta Wellington hirien pare jarriko duen Volcom Bowl-A-Rama mundu mailako skateboarding zirkuituko proba.

Egia esan, ez dira gehiegi gurean skateboarding munduaren inguruan biltzen direnak, ezta? Ez da kirol masibo horietako bat, behintzat. Are eta gutxiago dira, gainera, skateboardinga ogibide dutenak. Hala ere, gurpildun ohol hauen gainean ibiltzen direnek ez dute profesional bihurtzea buruan izaten, ez behintzat hasiera batean, jende gehienarentzat zaletasun soila izaten baita patinatzea.

Horrez gain, ezin da esan Euskal Herrian indar handia duen kirola denik, ez al da hala? Futbola edo esku pilota bezalako kirolak, adibidez, askoz errotuago daude. Baina, hala ere, gurean bertan ere uste duguna baino sakonago sartuta daude skateboardingaren sustraiak eta horren isla garbia hiri, herri eta auzo ugartan topatzen ditugun skateparkeak dira, hau da, diziplina hau praktikatzeko gunek. Bestalde, bada gurean skate tradizio handia duen herri bat ere: Getxo. Arrigunagan La Kantera izeneko skateparke famatua dago; 80ko hamarkadan eraiki zuten eta mundu mailan ezagutzen dute jada, tradizio handiko gunea baita.

Orain, hainbeste urtetan landutako hazien fruituak jasotzeko garaia heldu da Getxora. Horren erakusle da Volcom Bowl-A-Rama mundu mailako zirkuituko proba bat gurera etorri izana; erantzule nagusiak, gainera, Getxo bertako skater, rider edo patinatzaileak dira –norberak erabaki dezala nola deitu nahi dituen–. Proiektu hau bultzatu dutenen

artean Alain Goikoetxea eta Kako daude, herrikoak biak eta 25 urte baino gehiago patinatzen daramatzenak; «bizitza osoa oholaren gainean», diote. Era batean edo bestean, maite duten kirola, euren zaletasun nagusia, ogibide bihurtzea lortu dute biek.

Kako skateboarding denda baten jabe da, Kako Skate Shop, eta txapelketetan ere parte hartzen du. Alain Goikoetxea, berriz, zirkuitu profesionaleko lehiakidea da eta Getxon egingo den probako partaideetako bat izango da. Bien lana ezinbestekoa izan da proba hau La Kanterara ekartzeko orduan. «Bowl-A-Rama mundu mailako zirkuitua da eta lehen aldiz egingo da proba bat Getxon», azaldu du Goikoetxeak. Orain arte Bondi (Sydney, Australia), Wellington (Zeelanda Berria) eta New York ziren egoitzak, eta, horrenbestez, Getxok mundu mailan sona duten hiri handien ondoan bere txokoa lortu duela esan daiteke. «Beti egon da, baina, proba honekin, skateboardingaren nazioarteko mapan are indar handiagoarekin kokatuko da Getxo, merezi duen lekuan», diosku Kakok.

Munduko zirkuitua gurera ekartzeko lanak duela pare bat urte hasi zituzten. Chad Ford australiarrak, munduko zirkuituaren zuzendariak, La Kantera skateparkea ezagutzen zuen, bera ere patinatzailea baita, eta, esan bezala, «La Kantera mundu mailan ezaguna delako». Aurrez bertan patinatzen izandakoa zen eta Getxoko skateparkeak lehiaketa bat antolatzeke ezaugarriak «guztiz betetzen» zituela uste zuen. Hala, Chad Ford bera, Alain,

Volcom Bowl-A-Rama zirkuituko proba hartuko duen La Kantera Getxoko skateparkea dugu ikusgai goiko irudian. Behekoan, skater bat, «hegan».

GAUR8

